



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

# ERDI AROKO HIRIGUNEAREN, ORO HAR, HONDATZEN DUTEN ERROTULU, TXARTEL ETA ANTZEKOAK ALDATZEKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN ARAUTEGIA

## I. ATALBURUA.-ARAUAREN HELBURUA

### 1. ATALA.-

Vitoria-Gasteizko Edesti-Erdirako Udal-Sailak, bertan adierazten diren agindu eta iritzietara, bere tamainu, taula eta koloreagatik hiri ingurunearen bihurrigarri diren txartel, ikur, eta izenburuak aldatzeko edo egokitzeko ematen duen dirulaguntzaren araupetzea da Araudi honen helburua.

## II. ATALBURUA.-BETEBIDERATZE EKINTZEN EREMUA

### 2. ATALA.-

Indarreango hiriantolaketa Udal Plangintza-Onokorraren Arau Osagarrietan aipatzen den Vitoria-Gasteizko Erdiaroko Hirigunearen muga barruan dagoena da dirulaguntza hauen betebideratze eremu geografikoa.

### 3. ATALA.-

Indarreango hirigintza eta segurantza, osasungarritasun eta osasunbide araudia errespetatzen duten merkatal egoitza eta negozio lekuen zabalkunde-agerki ez egokiak izango dira dirulaguntza hauen helburua.

### 4. ATALA.-

Dirulaguntza hau iristeko ingurune hirigintza eta arkitekturarekin egokiagoez, zabal-kunde-agerkien aldatzea, edo lehen dagoena hobeto egokitze ekintzak izango dira.

## III. ATALBURUA.-DIRU ESKUARTEAK ETA LAGUNTZEN ZEN BATEKOA

### 5. ATALA.-

Txartel, ikur eta izenburuak egokitzeko emaniko dirulaguntza-Plangintza hau eratzeko beharrezko eskuarteak, Arabako Foru Aldundiaren 1.981-83ko Aurrekontu Berarizkoaren Banaketako XII Atalburutik datoz, Sail honen bitartez.

### 6. ATALA.-

Vitoria-Gasteizko Edesti-Erdirako Sailak ematen duen dirulaguntzaren helburua zera izango da: Araudi honetako aurrez ikusitako ekintzak akitzen dituen eskubidedunei sortzen dizkien gastuen murrizketarako.

### 7. ATALA.-

Dirulaguntza hauen zenbatekoa, eraikintza be-rrien eta ekintza berrietarako finkatzen direnen % 50ean gelditzen da, eta taula edo koloreak egokitzeko iraurarazte kasuan, 40.000 pezeta gehienekoz.

## IV. ATALBURUA.-DIRULAGUNTZAREN ESKUBIDEDUNAK

### 8. ATALA.-

7.atalak dioen Dirulaguntzaren eskubidedun lanbide, merkatal edo negozio norbanako edo legezko inork, jabe edo ez jabeak Erdiaroko Herriguneko leku batean diharduenak.

### 9. ATALA.-

Dirulaguntzaren eskubidedunak, norbereizenean izango dira eta horregatik berauek, eta ez toki edo beren negozioak, izango dira dirulaguntza hauen eskubidedunak.

## V. ATALBURUA.-BALDINTZAK ETA BETEKIZUNAK

### 10. ATALA.-

Aipaturiko dirulaguntzaren helburu izango diren txartel, ikur eta izenburuak ondorengo baldintzak izan beharko dituzte:

a) Betikakoa eta zuzenean aurrekaldeari edo egoitzaren beste zerbait josi aizan.



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

- b)** Eskulanez eta material iraunkor, burdin, brontze, zur eta horrelakoren batean baka-rrik, egina izan.
- c)** Guneko hiri inguruneari dagokion estetikarekin bere diseinua bat etorri.
- d)** Dirulaguntza Plangintza honetatik kanpo "neonezko" argiz osaturiko zabalkunde-agerkiak eta Merkatal etxe batzuk sailean eginikoak gelditzen dira.

#### **11. ATALA.-**

Udal Agintarau eta Erdiaroko Hirigunearen Arkitektura Ondasunen Iraunarazte eta Lehe-neraketa Plangintza Orokorraren Arau Osagarri eta indarreango Teknika arauak gai honi buruz erabakitzen dutenera egongo dira bere eraiketa eta lekuketa.

#### **12. ATALA.-**

Dirulaguntza hartu duten txartel, ikur eta izenburuak 5 urtetan ezin daitezke ez aldatu eta ez ordezkatu, istripu bat edo indar handiagoko, behar den bezala egioztatua, arrazoina izan ezik.

### **VI. ATALBURUA.-IKUSKETA, ZAINGO ETA ZIGORRAK.**

#### **13. ATALA.-**

Vitoria-Gasteiz-ko Edesti-Erdirako Udal Sailak, eskaleak aurkezturiko datuen egitasuna eta eraiketen epeen betetzea eta diseinuen berezitasunak ikusteko, zaingo egokien berezitasunak ikusteko, zaingo egokien biderapen eta ihardutze-moduak aukeratzeko eskubi-dea bere gain gordetzen du.

#### **14. ATALA.-**

Aipaturiko dirulaguntza hontarako izendatzen diren aginduen edozein hausketak dirula-guntzaren berehalako deuzetzea dakar, dagokion udal erruzorra ezarri dezaiokela, indarreango udal agintarauak edo araua hausten bada.

#### **15. ATALA.-**

Aipaturiko arauen haustea, txartel, ikuredo izenburuak ipiniz gero eta dirulaguntza esku-ratuz gero izan bada, legehaustaileak gutzia erabat bihurtu behar du.

#### **16. ATALA.-**

Vitoria-Gasteizko Edesti-Erdirako Udal Sailak gerta litezkeen erreklamazio guztiak eraba-kiko ditu, inolazko gora jote gabe.

### **VII. ATALBURUA.-DIRULAGUNTZA EGIPIDETZEA**

#### **17. ATALA.-**

Araudi-honen 2.atalean izendaturiko muga barruan diren merkatal eta negozio tokien eta dirulaguntza hauek iritsi nahi dituzten jabe edo maizterrak Vitoria-Gasteiz-ko Edesti-Erdirako Udal-Sailaren bulegoetan ondorengo agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

- a)** Horretarako egin den eske-papera, behar den bezala beteta.
- b)** Txartel, ikur eta izenburuen diseinu edo zirrimarra 1:50 Neurri-heinean, behar den bezala laukitua, zein neurri material eta koloreak zehazki azpimarratuz.
- c)** Non ipini behar den aurrekaldearen disei-nua 1:50 Neurri-heinean, edo aipaturiko au-rrekaldearen argazki bat, lekutu behar den leku zehatza eta bere gainean, proposaturiko zirrimarraz.

#### **18. ATALA.-**

Eske-papera aurkeztu egunetik hasita hamar lan-egun baino lehen, Vitoria-Gasteiz-ko Edesti-Erdirako Udal-Sailak dagokion dirula-guntza eman zaiola edo bestela, egiaztatzen dituen arrazoinaz, bere eskaria deuzatzu egin dela eskatzaileari adieraziko dio.

#### **19. ATALA.-**

Oirulaguntzaren helburu diren txartel, ikur eta izenburuak ipinita gero, dagozkien zoragi-riak aurkeztuz eta behin ere ez hasierako aurre-kontuko zenbatekoa baino gehiago, la-guntza-rako agindutako dirua ordainduko da.